

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UPV/EHU_n ETA TECNALIA_n IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA 2022

tecnal:a

MEMBER OF BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

ERABAKIA, 2022ko UZTAILAREN 21ekoa, IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAN ETA TECNALIAN IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA ARGITARATZEKO, DOKTOREGAIAK PRESTATZEKO BATERAKO PROGRAMA BAT SORTZEA HELBURU DUEN TECNALIA RESEARCH & INNOVATION FUNDAZIOAREN ETA UPV/EHU^{ren} ARTEKO HITZARMENAREN BABESEAN.

1. oinarria. DEIALDIAREN HELBURUA

Deialdi honen helburua da unibertsitateko tituludunak UPV/EHUko doktorego programetan presta daitezela sustatzea eta doktorego tesiak egin ditzatela bultzatzea, eranskinean adierazitako gaitan, UPV/EHUⁿ bi urteko doktorego aurreko kontratu bat eta Tecnaliaⁿ urte beteko praktika kontratu bat sinatuta, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen (aurrerantzean ZTBL) 21. artikuluan eta Langileen Estatutuan ezarritakoarekin bat.

Prestakuntza bidean dauden ikertzaileak kontratatze deialdi hau, bertan berariaz aurreikusita ez dauden alderdiei dagokienez, UPV/EHUⁿ ikertzaileak prestakuntzarako kontratatze deialdi orokorraren oinarrien arabera arautuko da. Deialdi hori Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (IGBB) onartu zuen 2022ko maiatzaren 18ko bileran, eta Gobernu Kontseiluari horren berri eman zitzaion 2022ko maiatzaren 24an.

2. oinarria. DOKTOREGO TESIEN GAIAK

Doktorego tesien gaiak deialdi honen eranskinean jasota daude.

Izangai bakoitza eranskineko bi gaitara aurkeztu ahal izango da gehienez.

Izangai bati deialdi honetan eskainitako kontratuetako bat esleituz/emanez gero, izangai horrek, automatikoki, deialdian eskainitako gainerako kontratuen onuradun izateko eskubidea galduko du.

3. oinarria. KONTRATUEN FINANTZIAZIOA ETA IRAUPENA

Kontratuak finantzatuko dira Tecnalia Research & Innovation Fundazioak eta UPV/EHU^k doktoregaiak prestatzeko programa bateratu bat sortzeko sinatutako lankidetzahitzarmenean ezarritakoaren arabera.

Lankidetzahitzarmenean oinarritutako kontratu bakoitzerako zehaztuko den hitzarmen espezifikoan ezarritakoaren arabera, UPV/EHUⁿ doktorego aurreko kontratu baten bidez prestatzen ari diren ikertzaileak kontratatze indarreko legeriaren arabera egingo da kontratazioa, eta urtebeteko iraupena izango du, bigarren urtez luzatzeko aukerarekin. Luzapen hori egiteko, PROIEKTUAREN helburuak lortu beharko dira, aipatutako hitzarmenaren bidez eraturako Jarraipen Batzorde Mistoak aldeko txostena eman beharko du eta akordioa indarrean egon behar da luzapena egiten denean. PROIEKTUAREN hirugarren urtearen hasieran, eta arestian deskribatutako baldintza berberei lotuta, TECNALIA^k prestakuntzako lan kontratu bat formalizatuko du praktika profesionala lortzeko. Kontratu horren iraupena urtebetekoa izango da.

4. oinarria. PERTSONA ESKATZAILEEN BETEKIZUNAK

Eskaera egin ahal izateko doktoregora sarbidea ematen duen unibertsitateko titulua eduki beharko da, eta, titulua atzerrikoa bada, titulu baliokide moduan ofizialki aitortuta egon beharko da, hezkuntza sistema arautzen duten indarreko legeen arabera. Unibertsitateko titulua 2022ko otsailaren 1az gero lortutakoa izan beharko da.

Modu osagarrian, doktoregora sarbidea ematen duen titulu baten azkeneko maila egiten ari diren pertsonak ere eskaera egin ahal izango dute. Pertsona horiek epe osagarri bat izango dute espediente akademiko osoa aurkezteko, 2022ko urriaren 17ra arte, hura barne, deialdi honen

5. oinarrian deskribatutako edozein bitarteko erabilita. Hala egin ezean, pertsona horiek hautapen prozesutik kanpo geratuko dira».

Hautagaiek legez eska daitezkeen baldintzak bete beharko dituzte, Tecnaliak praktiketako kontratu modalitatean kontratatu ditzan, doktoregorako sarbidea ematen duen eta deialdi honetan gai bakoitzeko zehaztutako tituluari dagokionez; kontratu horrek 3. oinarrian zehaztutako iraupena izango du.

Era berean, hautagai izateko aurkezten diren gaietarako eranskinean ezarritako baldintza espezifikoak bete beharko dituzte.

Hautagarriak baldintza horiek betetzen dituztenak bakarrik izango dira.

5. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEA

5.1. **Aurkezteko tokia.** Eskakerak UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordeari bidaliko zaizkio. Bide hauek erabilita aurkeztu ahal izango dira: UPV/EHUren Egoitza Elektronikoa dagoen Erregistro Elektronikoa bidez; UPV/EHUren erregistro bulegoetan; edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua.

Erregistro elektronikoa erabiliz gero (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>), "Norako" atalean, lehenik eta behin "Ikerketaren arloko Errektoreordetza" adierazi beharko da, eta, bigarrenik, "Ikerketa Deialdien Kudeaketa (U02000256)", eta "eskatzen du" atalean honako hau zehaztu beharko da: "PBI/PIF TECNALIA 2022".

Esteka honetan kontsultatu ahal izango dira UPV/EHUren erregistro bulegoen helbideak eta jendaurreko ordutegiak: <https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/upv/ehuko-erregistro-orokorraren-ordutegia>

Posta bulegoak erabiliz gero, dokumentazioa gutun azal irekian aurkeztuko da, posta langileek eskabidearen lehenengo orria erregistra dezaten, eta posta ziurtatuz bidaliko da honako helbide honetara: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea; Ikerketaren arloko Errektoreordetza; Ikerketako Deialdien Atala; Errektoregoaren eraikina; Sarriena Auzoa, z/g; 48940 Leioa (Bizkaia).

Eskabidea UPV/EHUko erregistro bulegoetan edo posta bulego batean aurkezten bada paperean, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozein bide erabiliz, dokumentazio osoa posta elektronikoz bidali beharko da igz.piftecnalia-eskaerak@ehu.eus helbide elektronikora eskaera aurkezteko epearen barruan. Posta mezuan "gaia" atalean agertu beharko dira: "PBI/PIF TECNALIA 2022" eta eskatzailearen IZEN-DEITURAK. Deialdian ezarritako dokumentazioa eransteke, behar adina mezu bidali ahal izango dira eta horietan guztietan "gaia" atalean adierazitako informazioa adierazi beharko da (kontuan izan UPV/EHUko mezuaren gehieneko edukiera 10 MB-takoa dela; beraz, bidalitako dokumentazioak gehiago hartzen badu, mezua ez da jasoko).

5.2. Beharrezko dokumentazioa:

Ondoko dokumentu hauek aurkeztuko dira:

- a) **Eskaria inprimakia**, Ikerketaren arloko webgunean eskura daitekeen arauzko eredu erabiliz.
- b) **Ikaslearen ziurtagiri akademikoa**, kalifikazio guztiak eta horien datak jasotzen dituen. Ziurtagirian adierazi beharko da egindako irakasgai eta kredituak lizentziaturako edo titulazio baliokideko kreditu guztiak direla, eta eskatzaileari bidea ematen diotela hirugarren zikloko ikasketak egiteko.
 - a. Atzerrian osorik edo zati batean egindako ikasketen kasuan, espediente akademikoaren ziurtagirian edo espedienteari eransten zaion bestelako

ziurtagirian jasoko da zeintzuk diren gutxieneko eta gehieneko kalifikazioak kasuan kasuko ebaluazio sistemaren barruan; halaber, gainditzeko gutxieneko kalifikazioa zein den ere adieraziko da. Bestalde, doktoregora sarbidea ematen duen Espainiako unibertsitate tituluaren baliokidetasuna frogatzen duen ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko da.

- b. Ziurtagiri akademikoa atzerriko hizkuntza batean badago, zinpeko itzulpena erantsi beharko zaio, edo, bestela, izangaiak egingo duen ikerketa master ofizialeko edo doktorego programako zuzendariak ziurtatutako itzulpena.
- c) Ikertzaile eskatzailearen **curriculum**a PDF formatuan.
- d) **NAN**aren, **AIZ**ren edo **pasaportearen** fotokopia.
- e) **Ikasketak, zati bat edo osorik, atzerrian egin dituztenen kasuan, gainera**, hautagaiek atzerrian egindako unibertsitate ikasketen **batez besteko nota baliokidearen ziurtagiria** aurkeztu beharko dute, **zeina Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak igortzen baitu**. Dokumentu hori honako esteka honetan eskuratu daiteke:
<https://sede.educacion.gob.es/sede/login/inicio.jjsp?idConvocatoria=818>
- f) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren **bizitza laboralaren ziurtagiria**.

Era berean, hautatutako gaietan jasotako baldintza espezifikoak egiaztatzeko egoki iritzitako dokumentuak ere aurkeztu ahal izango dira.

5.3. **Eskariak aurkezteko epea**. Eskariak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, honako deialdi hau Ikerkuntzaren arloko errektoreordetzaren web gunean argitaratuko denetik kontatzen hasita.

6. oinarria. ESKAERAK IZAPIDETZEA ETA EBALUATZEA

6.1. Eskakerak aurkezteko epea amaitu eta 30 eguneko epean, gehienez, jasotako eskaeren hautagarritasuna aztertuko da, 4. oinarrian ezarritako baldintzak betetzen dituzten ala ez aintzat hartuta.

6.2. Hautagai hautagarriak bakarrik pasako dira hautapen fasera, eta fase hori balorazio irizpide hauen arabera egingo da:

- Tituluaren egokitasuna deialdi honetako gai bakoitzarekiko eta Espediente akademikoa. Espainiako unibertsitate sistematik kanpo lortutako espedienteen kasuan, Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Estatuko Agentziak (ANECA) atzerrian egindako unibertsitate ikasketen batez besteko nota baliokideak kalkulatzeko zerbitzuaren bidez esleitutako balioa aplikatuko da, lehia bidezko prozesu batean aurkeztu ahal izateko baliokidetzaren beharrezkoa den kasuetan (gehienez 20 puntu).
- Informatika ezagutzak eta hizkuntzak, gai bakoitzerako ezarritako baldintzen arabera (gehienez 20 puntu).
- Proiektuaren gaiari buruzko ezagutzak (praktikak, Gradu edo Master Amaierako Lana, egindako lan teknikoak, azterlanak edo eskatzaileak aurkeztutako bestelako merezimenduak) (gehienez 30 puntu).
- Gaitasunak eta jarrera pertsonalak (gehienez 30 puntu).

6.3. Hautapen Batzordea honako hauek osatuko dute:

1. Batzordeburua: Inmaculada Arostegui Madariaga andrea edo eskuordetzen duen pertsona.
2. Idazkaria: Jesús Sanz Casas jauna.
3. Batzordekideak:

- Susana Gómez-Goicoechea Oteo andrea.

- José Luis Martín González jauna

6.4. Hautapena egiteko, batzordeak, beharrekotzat jotzen badu, elkarrizketa bat egin ahal izango die hautagaiei beren curriculuma defendatu dezaten.

6.5. Hautapen prozesua urriaren 24a baino lehen amaituko da.

7. oinarria. ERABAKIA

Behin hautapen prozesua amaituta, Hautapen Batzordeak Ikerketaren arloko errektoreordeari helaraziko dio erabaki proposamena.

Kontratua emateko edo ukatzeko behin betiko erabakia Ikerketaren arloko errektoreordearen webgunean argitaratuko da, eta argitalpen horrek berak jakinarazpen balioa izango du interesdunentzat.

Kontratua egin ahal izateko, onuradunak dagokion UPV/EHUko doktorego programa ofizialean matrikula egin beharko du, bertan onartua izan ondoren.

Emateko ebazpenean kontratu-kopurua aldatu ahalko da aurrekontuaren arabera edo gerora sortutako arrazoiak direla eta. Edonola ere, kontratu bakoitzaren egitezko emateko erabakia UPV/EHUren eta Tecnaliaren arteko hitzarmen espezifikoaren sinadurari baldintzatuta egongo da.

Halaber, laguntzetako bat huts deklaratu ahal izango da, behin hautaketa-prozesua eginda, eskatzaile batek ere ez baditu betetzen proposatutako doktoregoaren garapen hobereneko baldintzak, oinarri hauetan zehaztutako irizpideen eta ikerketa-gai bakoitzean adierazitako profilen arabera.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Deialdi honek administrazio bidea amaitzen du, eta beronen kontra administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean, deialdia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Hala izanik ere, aukerazko birjartze errekurtsioa jarri ahal izango da ebazpena argitaratu eta hilabetearen epean Ikerketaren arloko Errektoreordearen aurrean, 39/2015 legearen 123. artikuluekin bat etorrita.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Honako deialdi hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratzerakoan sartuko da indarrean.

Leioa, 2022ko uztailaren 21ean.

Inmaculada Arostegui Madariaga

Ikerketaren arloko errektoreordea
Vicerrectora de Investigación

I. ERANSKINA

DOKTOREGO TESIEN GAIAK

1. Gaia: Performance-based assessment of existing bridges under a perspective of decision making for efficient bridge life cycle management using digital tools and methods

Tesiaren izenburua: Performance-based assessment of existing bridges under a perspective of decision making for efficient bridge life cycle management using digital tools and methods

Doktoregoaren deskribapena: Ingeniaritza Mekanikoa.

Probintzia: Bizkaia

Deskribapena:

Ikerketak bi eremu hartuko lituzke:

- Performance-based assessment of existing bridges.
- Decision making for efficient bridge life cycle management.
- Digital technologies for information capture, storage and assessment.

Eremu hauen ikuspegitik ondorengo puntuak garatuko lirateke:

- Plen jarduera-adierazleen definizioa eta karakterizazioa eta KPlen jarduera-adierazle nagusiak.
- Plen karakterizazioa egitura ebaluatzeko eta mantentze-lanak planifikatzeko
- Erabakiak hartzeko ereduak (DM), kontzeptu-irtenbide desberdinekin. Ikaskuntza automatikoko ereduak aplikazioak
- Metodo eta sistema digitalak garatzea, informazioa atzitzeko eta biltegitratzeko automatizazioan aurrera egiteko

Hautagaiek bete beharreko baldintzak:

- **Eskatutako titulu akademikoa eta espezialitatea:** Industria Ingeniaritza, Ingeniaritza Zibila edo antzekoak eta Ingeniaritza Zibileko Masterra / Eraikuntzaren Masterra / Materialen masterra edo antzekoak.
- **Hizkuntzak:** ingelesa.
- **Informatika ezagutzak eta tresnak:** Python eta PhP.

Baloratuko diren ezagutzak: Egituren mekanika ezagutzea eta programazioan jakitea baloratuko da.

2. Gaia: Eraikinen barneko airearen kalitatea eta erosotasuna karakterizatzea. Diseinu eta eragiketarako ereduak.

Tesiaren izenburua: Eraikinen barneko airearen kalitatea eta erosotasuna karakterizatzea. Diseinu eta eragiketarako ereduak.

Doktorego programa: Energia Eraginkortasuna eta Jasangarritasuna Ingeniaritzan eta Arkitektura.

Probintzia: Bizkaia.

Deskribapena:

Eraikinen barneko airearen karakterizazio energetikorako eta kalitaterako ereduak garatzen dira azterketa fluidodinamikoaren bidez, eta esperimendazioan oinarrituta baliozkotzen dira. Hainbat motatako eraikinei eta aireztapen-sistemei aplikatu dakizkiekeen orokortze-metodoak garatzen dira.

Airearen kalitatea eta kutsatzaileen kontzentrazioa (arrazoizko mailetan) eraikinen barruan, eta espazioen kontrol termikoa funtsezkoak dira giza jarduerak behar bezala garatzeko. Hori horrela da ingurune arruntetan (hezkuntza-eraikinak, bulegoak...), ingurune berezietan (auditorioak, atrioak...) eta baldintza altuetan (areto zuriak, ospitaleak...). Ereku horretan gero eta interes handiagoa dago, birusak airez kutsatzeko prozesuek (SARS-COV2) eragin handia izan baitute.

Eraikinen bilakaera eta eraikinak aireztatu eta girotzeko sistemak direla eta, beharrezkoa da eraikinen barruan airea banatzeko ereduak sakon ezagutzea. Aireztapena, aldi berean, beharrezkoa da espazio osasungarriak eta energia-kontsumoaren bektore handia bermatzeko.

Doktorego-proiektu honen helburua da eraikinen barneko espazioen karakterizazio-prozesuak ikertzea, aireztapen-sistemekin. Fluidoaren dinamika konputazionalaren bidez eta ereduak murrizteko prozesuen bidez ereduak garatu nahi dira, aireztapen-sistemak diseinatze eta operazioak ebaluatze metodoak garatu ahal izateko. Zenbakizko modelatze, kalibratze eta baliozkotze esperimentaleko prozesuak egingo dira.

Doktoregaiak ezagutza zabala jasoko du honako arlo hauetan: jariakinen dinamika konputazionala, aireztapenari eta barne-airearen kalitateari lotutako metrikak eta prestazioak, analisi esperimentala eta ereduaren baliozkotzea.

Hautagaiek bete beharreko baldintzak:

- **Titulua eta espezialitatea:** masterra Ingeniaritza Industrialean (Termoenergetika), Zientzia Fisikoetan eta antzekoetan.
- **Hizkuntzak:** ingelesa menperatzea.
- **Informatika:** Fluidoaren dinamika konputazionala aztertze softwarea ezagutzea. Zientziara bideratutako programazioari buruzko ezagutzak (Matlab, R eta/edo Python).

Baloratuko diren ezagutzak: Gradu eta master lanak jariakinen dinamika konputazionalan eta/edo zenbakizko analisisian.

3. Gaia: Optimization and control strategies of multi-energy systems based on "Power-to-X" technologies for the integration of flexible resources

Tesiaren izenburua: Optimization and control strategies of multi-energy systems based on "Power-to-X" technologies for the integration of flexible resources

Doktorego programa: Energia Elektrikoko Sistemak.

Probintzia: Bizkaia.

Deskribapena:

We have an exciting Ph.D. position to share with you at TECNALIA and the UPV/EHU. We are seeking a student interested in applying advanced mathematical and computational techniques to study the interaction between the gas network and the power system under the availability of flexible resources in both sectors, considering the uncertainty around the availability of those sources. Therefore, this Ph.D. thesis intends to research the potential of Sector Coupling possibilities such as power-to-heat, power-to-gas, or power-to-mobility, as part of the energy system integration.

During this Ph.D. thesis, you will:

- Propose and develop simulation models for estimating the impact of distributed energy resources (DERs), gas boilers, and gas turbines on the multi-energy system.
- Extend the model with regard to different optimization approaches in order to reduce the complexity of the modeling and the computational time.
- Simulate and validate the solution proposed in one or several representative networks and in different scenarios according to the flexibility available in the systems.
- Perform multiple computer-aided experiments and analyze the obtained data.
- Formulate conclusions and recommendations to achieve the optimal operation of multi-energy systems.

Hence, this thesis addresses relevant issues in the field of management and operation for the energy system integration where TECNALIA plans to run a relevant activity line within its business area.

Hautagaiek bete beharreko baldintzak:

- **Titulua eta espezialitatea:** Master's degree in science or engineering or a comparable field of study; Electrical Engineering, Renewable Energy Engineering, Industrial Technology Engineering or similar and Master in

Integration of Renewable Energies in the Electrical System, Electrical Engineering or similar.

- **Hizkuntzak:** English fluently.
- **Informatika:** Initial experience modeling and simulating energy systems such as gas and/or electricity networks. Knowledge of power and control electric systems simulation programs such as (PowerFactory, PSS@E, Matpower, Simulink/SimPowerSystems) and programming languages (Matlab, Python).

Baloratuko da: Interest in learning or an essential background in mathematical optimization (convex programming, mixed-integer programming) and probabilistic methods (sampling & clustering methods, uncertainty propagation). Knowledge of one or more modeling tools for optimization problems, such as Julia, CVXPY, Pyomo, CPLEX, Gurobi, Python, Matlab, will be positively evaluated.

4. Gaia: 5G sareen gaineko EdgeComputing arkitekturak aztertzea eta agente arinak monitorizatzeko sistema bat ezartzea, latentzia txikiko erabilera ultra fidagarriak hedatu eta haien jarraipena egiteko.

Tesiaren izenburua: 5G sareen gaineko EdgeComputing arkitekturak aztertzea eta agente arinak monitorizatzeko sistema bat ezartzea, latentzia txikiko erabilera ultra fidagarriak hedatu eta haien jarraipena egiteko.

Doktorego programa: Sare Mugikorretarako Informazio eta Komunikazio-Teknologiak
Doktoregoa.

Probintzia: Bizkaia.

Deskribapena:

5G sareetarako dauden Edge Computing arkitekturen azterketa, latentzia txikiko sare ultra fidagarriak behar dituzten kasuetan espezializatuta. Lortu nahi den helburua edo ekarpena adierazle-esparru egokia da, 5G sareetan erabilera-kasua behar bezala aplikatzen den neurtzeko, eta monitorizazio-sistema bat diseinatu eta ezartzeko. Horretarako, nodoetan zabaldu daitezkeen eta erabilera-kasuaren errendimenduari eragiten ez dioten metrikak biltzeko agente arinetan jarriko da arreta.

Edge Computing 5G-ren latentzia-, fidagarritasun- eta eskalagarritasun-baldintzetarako irtenbide giltzarri bihurtu da. Baliabide informatikoak, biltegitratze-baliabideak eta sareko baliabideak sarearen ertzera eramatean, atzerapenekiko sentikorrek diren aplikazioek, kokapena ezagutzen duten sistemek eta hurrengo zerbitzuek azken erabiltzailearen eta datuen edo zerbitzu ostalariaren arteko ibilbide fisiko eta logiko murriztuaren onurak aprobetxatzen dituzte. Gailu-sarearen arkitektura eta topologia funtsezkoak dira; hurbilketa ezagunena Mobile Edge Computing (MEC) da, non prozesatze-gaitasunak irratiko sarbide-sareko nodoetan ezartzen baitira.

Tesi honen bidez, Edge Computing sare mota bakoitzaren erreferentziazko arkitekturak eta inplementazio- eta operazio-oinarriak aztertuko dira, 5G erabilera-/zerbitzu-kasuen bideragarritasuna ezartzeko eta errendimendua monitorizatzeko sistema bat diseinatzeko gai izan daitezen, erabilera-kasuak baldintza egokiak betetzen dituela ziurtatzeko.

Hautagaiek bete beharreko baldintzak:

- **Titulua eta espezialitatea:** Telekomunikazio Teknologiaren Ingeniaritzako Gradua eta Telekomunikazio Ingeniaritzako Masterra.
- **Hizkuntzak:** gaztelania eta ingelesa.
- **Informatika:** informatikan ezagutza eta interesa.

5. Gaia: Satellite bidezko irudiak sailkatzeko konputazio kuantikoko algoritmoak

Tesiaren izenburua: Satellite bidezko irudiak sailkatzeko konputazio kuantikoko algoritmoak

Doktoregoaren deskribapena: Fisika.

Probintzia: Bizkaia.

Deskribapena:

Konputazio kuantikoko algoritmo berriei buruzko ikerketa, irudi satelitalak sailkatzeko arazoa konpontzeko, hainbat aplikaziorekin, hala nola lurzoruaren erabilera identifikatzea, objektu flotatzaileak identifikatzea, edo desertifikazio-prozesuaren jarraipena egitea.

Irudien sailkapena prozesu bat da, zeinaren bidez pixel edo bektore multzoak sailkatzen eta etiketatzen diren irudi baten barruan, arau espezifikoaren arabera.

Aukerak:

Objektuen detekzioak irudi baten adabakiak objektu mota desberdinetan sailkatzen ditu eta objektu horren inguruan koadro mugatzaile bat sortzen du.

Segmentazio semantikoak irudi batean pixel mailako sailkapena ematen du, hau da, pixelak dagozkien klaseetan sailkatzen ditu.

Tesia algoritmoen buruzko ikerketan zentratuko da, hodeiko konputagailu kuantikoen buruzko teknika horiek garatzeko.

Hautagaiek bete beharreko baldintzak:

- **Titulua eta espezialitatea:** Fisikako Masterra: Zientzia eta Teknologia Kuantikoak. Konputazioan eta/edo matematikan osagai garrantzitsua duen beste edozein titulazio gaitzaile.
- **Hizkuntzak:** gaztelania eta ingelesa

6. Gaia: QKD protokoloak makinaz makina komunikatzeko (industria, energia)

Tesiaren izenburua: QKD protokoloak makinaz makina komunikatzeko (industria, energia).

Doktorego programa: Sare Mugikorretarako Informazio eta Komunikazio-Teknologiak Doktoregoa.

Probintzia: Bizkaia.

Deskribapena:

Gaur egun, gako kuantikoen trukea (Quantum Key Distribution – QKD) ongi garatuta dago sare korporatiboetako aplikazioetarako, baina makinaz makinako komunikazioetan duen aplikazioa erronka garrantzitsuei aurre egin behar die, bideragarria izan dadin, kontsumo konputazionalari, energetikoari eta abarri dagokienez.

Oinarrizko partikulen egoera kuantikoa behatze hutsak aldatzen du, eta egoera kuantiko arbitrarioak ezin dira erreplikatu (ez klonazioaren teorema). Propietate horiek edozein komunikazio-kanalean edozein intrusio-mota (baimendu gabeko irakurketa) detektatzeko erabil daitezke, eta, bereziki, gako kriptografiko bat partekatzen ari den kanal bat. Gaur egun, baimendu gabeko irakurketak detektatzeko hainbat protokolo daude, hala nola BB84 protokoloa.

Makina bidezko komunikazioetarako QKD erabiltzeari lotutako hainbat erronka daude: elementu optikoak sinplifikatzea, konputu-kopuru txikiagoa behar duten algoritmoak garatzea edo hardwarea errazago kontrolatzea, prezioa, eskala eta kontsumoa murrizteko.

Hautagaiek bete beharreko baldintzak:

- **Titulua eta espezialitatea:** Telekomunikazio teknologietako masterra. Konputazioan eta/edo matematikan osagai garrantzitsua duen beste edozein titulazio gaitzaile.
- **Hizkuntzak:** gaztelania eta ingelesa.

7. Gaia: Komunikazio espazialeterako QKD protokoloak

Tesiaren izenburua: Komunikazio espazialeterako QKD protokoloak

Doktorego programa: Fisika: Quantum Information Science and Technology

Probintzia: Bizkaia.

Deskribapena:

Gaur egun, gako kuantikoen trukea (Quantum Key Distribution – QKD) ondo garatuta dago sare korporatiboen aplikazioetarako, eta sakon ikertzen ari dira nola aplikatzen diren komunikazio espazialeteran, zuntz optikoaren ordez laserrak edo espazio librean hedatzen diren mikrouhinak erabili behar baitira.

Oinarrizko partikulen egoera kuantikoa behatze hutsak aldatzen du, eta egoera kuantiko arbitrarioak ezin dira erreplikatu (ez klonazioaren teorema). Propietate horiek edozein komunikazio-kanaletan edozein intrusio-mota (baimendu gabeko irakurketa) detektatzeko erabil daitezke, eta, bereziki, gako kriptografiko bat partekatzen ari den kanal bat. Gaur egun, baimendu gabeko irakurketak detektatzeko hainbat protokolo daude, hala nola BB84 protokoloa.

Satelite-komunikazioetan QKDa erabiltzearekin lotutako hainbat erronka daude; batez ere, distantzia luzeetara (satelite geoestazionarioak barne) transmititzen direnean fotoien propietate kuantikoak bere horretan mantendu behar direlako, kanpo-perturbazioen aurrean sentikortasun handia dutelako.

Hautagaiek bete beharreko baldintzak:

- **Titulua eta espezialitatea:** Fisikako Masterra: Zientzia eta Teknologia Kuantikoak. Konputazioan eta/edo matematikan osagai garrantzitsua duen beste edozein titulazio gaitzaile.
- **Hizkuntzak:** ingelesa eta gaztelania

8. Gaia: Quantum detection assisted by artificial intelligence

Tesiaren izenburua: Quantum detection assisted by artificial intelligence

Doktorego programa: Fisika

Probintzia: Bizkaia.

Deskribapena:

Detection and spectroscopy at the micro, and nanoscale of different nuclear species would allow the trace of distinct molecular compounds with unprecedented precision, thus having an immediate impact in different fields such as material sciences, chemistry, biochemistry, and medicine. In this scenario the correct interpretation of the signal emitted by the sensors via (namely, individual sensors, ensembles, or entangled sensors) via advanced artificial intelligence methods would permit the efficient identification protein dynamics, detection of low concentrated samples, as well as the study of complex systems and dynamics such as cell membranes.

Hautagaiek bete beharreko baldintzak:

- **Titulua eta espezialitatea:** Fisikako, kimikako edo matematikako gradua eta teknologia kuantikoetako masterra.
- **Hizkuntzak:** ingelesa eta gaztelania
- **Informatika:** Programazioari buruzko ezagutzak baloratuko dira, ahal dela Python edo Matlab

9. Gaia: Adimen artifiziala softwarearen garapenaren bizi-zikloan aplikatzea

Tesiaren izenburua: Adimen artifiziala softwarearen garapenaren bizi-zikloan aplikatzea

Doktorego programa: Ingeniaritza informatikoa

Probintzia: Bizkaia.

Deskribapena:

Adimen artifizialaren ikuspegiak aplikatzea segurtasunaren zor teknikoaren kudeaketan, softwarearen garapenaren bizi-zikloan.

Softwareko erakunde intentsiboek oso merkatu lehiakor bati egin behar diote aurre; merkatu horretan, bizirik irauteko giltzarrietako bat "time to market" delakoarekin lotuta dago. Enpresek software-produktu bat garatzeko erronkari aurre egiten diotenean, produktu horren biziraupenean eragin nabarmena izan dezaketen erabakiak hartu behar dira: 1) produktua ahalik eta azkarren merkaturatzeari lehentasuna ematea vs 2) software-produktu bat garatzea, ahalik eta kalitate-estandar onenak aplikatuz. Egoera horietan, erakundeek, eskatutako kalitate-estandarrek aplikatu beharrean produktu bat ekoizpenean jartzeari lehentasuna ematean, garatu beharreko software-produktuari buruzko erabakiak hartzen dituzte, eta produktu horiek etorkizunean mantentzean eragina izan dezakete, erabaki horien ondoriozko aparteko kostuei dagokienez. Fenomeno horri "zor teknikoa" esaten zaio, eta lanaren ikerketa-oinarria izango da.

